


## IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026

	<b>BENTADES IKASTETXEA</b>		
<b>Ikasgaia/ Arloa</b>	FISIKA-KIMIKA		
<b>Irakaslea(-k)</b>	Ainoa Rios	<b>Ikasturtea</b>	2025 / 2026
<b>Zikloa/ Maila</b>	DBH3	<b>Talde kopurua</b>	2
<b>JUSTIFIKAZIOA</b>			
<p>Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealitate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.</p> <p>Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzen hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz.</p>			
<b>FUNTSEZKO KONPETENTZIAK</b>			<b>OINARRIZKO JAKINTZAK</b>
<p>Hizkuntza Komunikaziorako kompetentzia (HKK)                  Kompetentzia Eleaniztuna (KE)                  Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeneritzarako kompetentzia (STEM)                  Kompetentzia Digitala (KD)                  Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)                  Herritartasunerako Kompetentzia (HK)                  Ekintzaitza Kompetentzia (EK)                  Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Kompetentzia (KAKK)</p>			<u>Ikus anexo</u>
<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)</b>			

<p>1. Inguruneko fenomeno fisiko-kimiko nagusiak zergatik gertatzen diren ulertzea eta erlazionatzea, arazoak konpontzeko lege eta teoria zientifiko egokien arabera azalduz, hurbileko errealitatea eta gizakien bizi-kalitatea hobetzeko aplikatu ahal izateko.</p>	<p>1.1. Printzipio, teoria eta lege zientifiko egokietatik abiatuta, eguneroko fenomeno fisiko-kimiko garrantzitsuenak identifikatzea, ulertzea eta azaltzea, modu argudiatuan adierazita, euskarri eta komunikabide anitzak erabiliz.</p> <p>1.2. Planteatutako problema fisiko-kimikoak ebaztea, lege eta teoria zientifiko egokiak erabiliz, soluzioak aurkitzeko erabilitako prozedurak arrazoituz eta emaitzak behar bezala adieraziz.</p> <p>1.3. Zientzia-arloko benetako egoera problematikoak hurbileko ingurunean ezagutzea eta deskribatzea, eta zientziak eta, bereziki, fisikak eta kimikak horiek ebazten lagundu dezaketen ekimenei ekitea, gizartean duten inpaktua kritikoki aztertuz.</p>
<p>2. Ikasleek egindako behaketak galdera moduan adieraztea, horiek azaltzeko eta frogatzeko hipotesiak formulatuz, esperimendazio zientifikoaren, ikerketaren eta ebidentzien bilaketaren bidez, pentsamendu zientifikoaren arazoibide propioak garatzeko eta metodologia zientifikoaren erabileran trebetasunak hobetzeko.</p>	<p>2.1 Fenomenoak identifikatzean eta deskribatzean zientziaren berezko metodologiak erabiltze, ikerketaren, dedukzioaren, esperimendazioaren eta arrazoiketa logiko matematikoaren bidez, erantzuna eman dakiekeen gaiak abiapuntu hartuz, eta egiaztapen esperimentalik ez duten sasizientifikoak desberdintuz.</p> <p>2.2. Lantzen diren gaien izaeraren arabera, egindako hipotesiak egiaztatze edo ezeztatze modurik onena hautatzea, ikerketa-estrategiak diseinatuz eta egindako galderaren izaerarekin bat datozen ondorioak eta erantzunak lortzea ahalbidetuko duten ebidentziak bilatuz.</p> <p>2.3. Gaiak eta hipotesiak formulatzean ezagutzen diren lege eta teoria zientifikoak aplikatzea, dagoen ezagutza zientifikoarekin koherentea izanez eta horiek ebazteko edo egiaztatze beharrezkoak diren prozedura esperimentalak edo deduktiboak diseinatuz.</p>
<p>3. Fisikaren eta kimikaren oinarrizko erregelak eta arauak erraztasunez erabiltzea IUPACen hizkuntzari, matematika-hizkuntzari, neurketa-unitate zuzenak erabiltzeari, laborategiaren erabilera seguruari, eta datuak eta informazioa hainbat formatutan eta iturritan interpretatu eta sortzeari dagokienez, hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala eta zeharkakoa, eta ikerkuntzan eta zientzian herrialde eta kultura desberdinen arteko komunikazio fidagarriaren beharraz ohartzeko.</p>	<p>3.1. Prozesu fisiko-kimiko jakin bati buruzko informazioa interpretatzean eta komunikatzean datuak hainbat formatutan erabiltzea, bakoitzak duena elkarren artean erlazionatuz, eta kasu bakoitzean problema bat ebazteko garrantzitsua dena kontuan hartuz.</p> <p>3.2. Behar bezala erabiltzea fisikaren eta kimikaren oinarrizko arauak, neurketa-unitateen erabilera, tresna matematikoak eta nomenklatura-arauak barne, komunitate zientifiko osoarekin komunikazio eraginkorra lortuz.</p> <p>3.3. Zientziaren berariazko espazioak —hala nola fisika eta kimikako laborategia— erabiltzeko arauak praktikan jartzea, norberaren eta taldearen osasuna, ingurumenaren kontserbazio jasangarria eta instalazioen zaintza ziurtatuz.</p>
<p>4. Plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak modu kritiko eta efizientearen erabiltzea, bai banakako lanerako, bai talde-lanerako, informazioa kontsultatuz, materialak sortuz eta ikaskuntza-inguruneetan komunikazio eraginkorra eginez, sormena, garapen pertsonala eta ikaskuntza indibidual eta soziala sustatzeko.</p>	<p>4.1. Askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, erabiltzea, ikaskuntza autonomia eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekiko elkarrekintza hobetuz, irakasleekiko eta ikasleekiko errespetuz, eta parte-hartzaile bakoitzaren ekarpenak kritikoki aztertuz.</p> <p>4.2. Informazioa kontsultatzeko eta edukiak sortzeko askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, modu egokian eta moldakorrean erabiltzea, iturririk fidagarrienak irizpidez hautatuz, egokienak ez direnak baztertuz eta norberaren ikaskuntza eta ikaskuntza kolektiboa hobetuz.</p>

<p>5. Lankidetzaren lanari dagozkion estrategiak erabiltzea, berdinaren arteko hazkundera sustatuz, komunitate zientifiko kritiko, etiko, eraginkor eta ekintzaile baten oinarri gisa, zientziak gizartearen hobekuntzan duen garrantzia, aurrerapen zientifikoaren aplikazioak eta ondorioak, osasunaren babesa eta ingurumenaren kontserbazioa jasagarria ulertzeko.</p>	<p>5.1. Elkarrekintza eraikitzaileak eta hezkidetzak ezartzea, kooperazio-jarduerak abiaraziz, zientzian lanerako bitarteko efizientea eraikitzeko modu gisa.</p> <p>5.2. Modu gidatua, eta metodologia egokiaren arabera, proiektu zientifikoak abiaraztea, ikasleak gizartearen hobekuntzan inplikaturik eta norbanakoarentzat eta komunitatearentzat balioa sortuz.</p>
<p>6. Zientzia etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den eraikuntza kolektibo gisa ulertzea eta balioestea, non zientzian diharduten pertsonen parte hartzeaz gain, gizarteko gainerako pertsonen arteko elkarrekintza ere eskatzen duen, aurrerapen teknologikoan, ekonomikoan, ingurumenekoan eta sozialean eragina duten emaitzak lortzeko.</p>	<p>6.1. Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta zientziak teknologian, gizartearen eta ingurumenean dituen ondorioak onartzea eta balioestea, zientziako gizon-emakumeen analisi historikoaren eta aurrerapen zientifikoaren bidez.</p> <p>6.2. Ingurunean hautematea gizarteak eskatzen dituen teknologia-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-premia garrantzitsuenak, herritar guztien inplikazioaren bidez zientziak soluzio jasagarria emateko duen gaitasuna baloratuz.</p>

### SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA

#### 1. ebaluaketa

Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da?	BALIOAK	<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
<p>1 FROGA 0 Gaia: Errepasoa 1 Gaia: Materiaren egoerak</p>	70%	<p><input checked="" type="checkbox"/> Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Metodo zientifikoaren ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoaren garatzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> Zientziako baliabide digitalak modu egokian erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> Talde lanean aritzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi</p>
<p>IKERKETA LANA Berri zientifikoak</p>	15%	<p><input checked="" type="checkbox"/> Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Metodo zientifikoaren ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoaren garatzea</p> <p><input type="checkbox"/> Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Zientziako baliabide digitalak modu egokian erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> Talde lanean aritzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi</p>
<p>JARRERA</p>	15%	<p><input checked="" type="checkbox"/> Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Metodo zientifikoaren ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoaren garatzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Zientziako baliabide digitalak modu egokian erabiltzea</p>

		<input type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
<b>2. ebaluaketa</b>			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	BALIOAK		<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
1 FROGA 2 Gaia: Materiaren aniztasuna 3 Gaia: Eredu atomikoak	70%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
TALDE LANA Eredu atomikoen denbora lerroa	15%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
JARRERA	15%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
<b>3. ebaluaketa</b>			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikoak		<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
1 FROGA 4 Gaia: Lotura kimikoa 5 Gaia: Estekiometria	70%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea

		<input type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
TALDE LANA Taula periodikoa	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
2 FROGA Formulaketa	10%	<input type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatzea eta pentsamendu zientifikoa garatzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Fisika-kimikako oinarrizko erregelak eta arauak ezagutu eta erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziatzko baliabide digitalak modu egokian erabiltzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	Talde lanean aritzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zientziaren bilakaera ulertu eta balioetsi
<b>BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA</b>			
<p>DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da. Ebaluaketa guztietan errekupeazioak egingo dira eta errekupeaketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira. Horrela gaintu gabeko ebaluaketa bat gaintuzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gaintu ez dena gaintuzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gaintuzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaintututa izatea. Ekainean irakasgaia gaintu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaintuz gero, aurreko ikasturtea gaintutuzat emango da. Ikasleak eskatuz gero, irakasleak udan lan egiteko materiala eskainiko die ikasle hauei.</p>			
<b>ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK</b>			

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketan zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezten. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzen zuzenduko da (ez oinarrizko jakintzak ebaluatzen). Konpetentzia espezifikoak ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarri erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzako da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualak egokituz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

## METODOLOGIA

Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jarduerak eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemen ebazpena, eta egoera errealean oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatuz.

Materialak eta jarduerak anitzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokituz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoak eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.

Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko.

## ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoak garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.

Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmo eta gaitasunetara moldatuz. Gainera, indartze eta sakontze jarduerak proposatzen dira, ikasleek ikasgaiak ondo menderatzen dituztenean, haien jakintza zabaltzeko.

Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten.